



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

KONTSEILUAREN URTEKO IRAKURKETA ETA ONDORIOAK

www.kontseilua.eus



Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak

Egilea: Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua


Argitaratze-data: 2017ko azaroaren 16a

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.kontseilua.eus atarian eskuragarri)

KONTSEILUAREN URTEKO IRAKURKETA ETA ONDORIOAK

<u>1. SARRERA</u>	—	4
<u>2. EDUKIAREN ANTOLAKETA</u>	—	6
<u>3. 2017: NEURKETA URTEA</u>	—	8
<u>4. CORPUS JURIDIKOA ETA ARAUGINTZA</u>	—	12
– EAEko hizkuntza hizkuntza-eskakizunak		13
– EAEko autogobernuari buruzko ponentzia		13
– Nafarroako Euskararen Legea		14
– Nafarroako Administrazioan Euskararen Erabilera Arautzeko Dekretua		15
– Nafarroako irakaskuntzako lan-deialdietako zerrendak		16
– Euskal Hirigune Elkargoa		16
– Hizkuntza-eskubideak babesteko legea Espainiako Kongresuan		17
<u>5. PLANGINTZA</u>	—	18
– Osakidetzako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren erdiko ebaluazioa		19
– Nafarroako Euskararen Lehen Plan Estrategikoa		20
– Nafarroako Unibertsitate Publikoko plan gidaria		20
– Gipuzkoako Foru Aldundiaren euskara planari helegitea		21
– Ipar Euskal Herrian hizkuntza-plangintza bateratzeko aukera		21
<u>6. BALIABIDEAK</u>	—	22
– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak		23
– Nafarroako aurrekontuak		23
– Ipar Euskal Herriko aurrekontuak		23
<u>7. HERRI-GOGOA</u>	—	24
– Izaera nazionaleko ekimenak		25
– Herrietako ekimenak		25
– Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa		26
– Bestelako ekimenak		26
<u>8. ONDORIO OROKORRAK. AURRERA BEGIRA</u>	—	28

1. SARRERA



Zabaldua dagoen adieraren arabera, euskararen normalizazioaren alde hartzen diren erabakien multzoak eta esleitzen diren baliabideen multzoak osatzen dute hizkuntza-politika. Azpimarratzekoa da, ordea, hizkuntza-politika kasu guztietan presente dagoen politika dela, euskararen alde egiten denean, bai eta egiten ez denean ere.

Horrekin esan nahi dugu, euskararen aldeko neurriak ez hartzea ere hizkuntza-politika egitea dela, bai eta gainerako politiketan hizkuntza-irizpideak ez hartzea ere. Hortaz, ez dago jarrera neutrorik, kasu guzti-guztietan existitzen da hizkuntza-politika, oso gutxi baitira pertsonen artean hizkuntza erabili gabe burutzen diren ekintzak.

Gure gizartean ohituak gaude, urtero, instituzioetan egoerari buruzko azterketak ikustera. Horrela, urte horrek zer eman duen, garatutako politikei buruzko zein balorazio egiten den eta etorkizunari begirako erronkak non kokatzen diren eztabaidatu ohi dute instituzioetako ordezkari politikoek.

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAN maiz izan dugu buruan euskararen normalizazioari buruzko aldizkako azterketa egiteko ideia, eta 2017an ildo berri honi ekitea erabaki dugu. Horrela, euskalgintzaren bilgune nagusi den KONTSEILUAK urtero euskararen normalizazioan izan diren gertaera nagusien bilduma egiteko asmoa du. Esan bezala, urteak zer eman duen ikusita etorkizuneko erronkak eta lehentasunak identifikatzea errazagoa izango delako.

2. EDUKIAREN ANTOLAKETA



Lanketa egiteko KONTSEILUAK prentsan euskararen normalizazioaren inguruan jasotako berriak izan ditu oinarri. Hortaz, urtean zehar hedabideetan hizpide izan diren gertaerak izan ditugu oinarri dokumentu hau prestatzeko. Egia esan, gertaera guztiak jasotzeko bokazioa ere ez dugu izan. Horrela, KONTSEILUAREN aburuz, normalizazioarekin lotura handiena duten berriak jasotzeko ahalegina egin dugu, horiekin urteak zer eman duen osatu ahal izateko.

Bestalde, berriak eta gertaerak sailkatzearren, KONTSEILUAK hizkuntzaren normalizazio-prozesua irudikatzeko horrenbestetan baliatzen duen lau zutabeen metafora erabili dugu:



Horrela, urteko gertaerak lau zutabe horien arabera antolatzeko saiakera egin dugu. Egia da, bai, batzuetan berri edo gertaera bat zutabe bati baino gehiagori lotu dakiokela, holakoetan Kontseiluaren irizpidea izan da gertaera horrek une horretan non duen eragin handiagoa aintzat hartzea, multzo batean edo bestean kokatzeko.

Bestalde, gertakari horietako bakoitzaren inguruan, ezagutzera eman diren iritzi batzuk ere mahai gaineratu dira. Gai horien inguruan aktore desberdinek defendatu izan dituzten diskurtsoak agerian jartze aldera. Amaitzeko, Kontseiluaren iritzia edota ikuspegia eta halakorik balego, horien inguruan garatutako ekinbideak ere azaldu ditugu.

3. 2017: NEURKETA URTEA



Berri edo gertaeren lanketari ekin aurretik bada 2017an izandako eta **aparte landu beharreko elementurik**. Izan ere, 2017an etorkizuna planifikatzeko baliagarriak diren bi ikerketaren datuak argitaratu dira, hain zuzen ere, **VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta VII. Kale Erabileraren Neurketa**.

Inkestek ez digute balio soilik errealitatea hobeto ezagutzeko, errealitatea bera ere moldatzen baitute inkestek. Hau da, ez dute soilik ikertzen den objektua deskribatzen, berau sortzen eta eraldatzen ere eragiten dute. Noski, berdina esan genezake, inkesta hauen inguruan egiten diren interpretazioen inguruan ere. Alegia, inkesten inguruko irakurketetan zabaltzen diren edo egituratzen diren diskurtsoek izaera performatibo hori dute, eta beraz, horrek tentu handiz jokatzera eraman beharko gintuzke, batik bat, gizarteratu nahi ditugun ondorioekin

Kontseiluak bi neurketa horien irakurketa egin zuen eta txosten berezitua argitaratu zuen horren inguruan. Ez dugu, beraz, txosten honetan orduko guztia errepikatuko, baina ondorio nagusienak bai gogoratuko ditugu.

Aurreko Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak aurkezterakoan, Soziolinguistika Klusterreko kideek honako ondorio hauek mahai-gaineratu zituzten:

“Egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen [kale] erabilerak goia jo du (...) Ez dago hobekuntza tartetik euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten ez badu eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik eskaintzen ez bazaie. Hau da, erabilerak ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira.”

Irakurketa horrekin bat egiten dugu oraingoan ere. Agerikoa da belaunaldi berriak dezente euskaradunagoak datozen arren, erdalduntzen dituen gizarte-bizitzaren eta sozializazio-prozesuaren kontra borroka egin beharrean direla. EAEko datuak ezagutu genituenean esan bezala, ume eta gazte euskaldunak talka egiten ari dira kristalezko sabai bilakatu zaien gizarte heldu erdaldunarekin. Kopuruz eta ahalez nagusi den helduen eremu erdaldunduak markatzen ditu korronteak gizarte-bizitza horretan.

Bestalde, ahalegin nagusia hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskalduntzean jarri duen hizkuntza-politikaren mugak agerian geratu dira. Zoritxarrez, orain artean behintzat, gezur sozial horri eutsi zaio. D ereduak euskaldunduko balu bezala bizi gara, eta zoritxarrez, transmisio hori gizarte-bizitzako beste esparruetara zabaltzeko bideak eten nabarmena du.

Garai batean, euskaldunok *gutxiagotasun konplexua* ezagutu bagenuen, gaur egun *ikasitako babesgabetasuna* delakoa ezagutzen dugu. Lehendik ere hitz egin izan digute gure egunerokoak euskaraz bizi nahi izaten dugunok jasan behar izaten dugun *estres linguistikoaz*. Kontua larriagoa da, ordea. Izan ere, jardungune batean eta bestean euskaraz hitz egiteko ahalegina egin eta lortu ez duenak, estresaz harago, egoera sozialera egokitze jokabidea izango du. Are gehiago ikusten badu ez duela beste aukera askorik, beste inork ez duela bere euskarazko jarduna babesten edo laguntzen eta lege-indarra edo instituzioena ere ez duela bere alde. Kasu gehienetan, beraz, bizitza sozialaren arauak bere baitan txertatu eta halako gertakizunen ondotik erdaraz jarduteko bidea hartuko du.

Etorkizunera begira jarrita, bada gure ustez mahai gaineratu beharreko beste ideia bat: *Erabilera eroso*. Erabilera aztertzerakoan, argi dago erabilera kate luze baten azken kate-begia dela. Alegia, kate-begi guztiak ongi lotuta eta koipetuta ez badaude, zaila da katea ongi mugitzea eta

ez herdoiltzea. Erabileraz hitz egitekoan, beraz, erabilera eroso egiteko baldintzak aztertu behar dira. Hau da, herritarrek ahalegin berezirik egin behar izan gabe, euskara eroso erabiltzeko zer nolako baldintzak behar diren eta zer nolakoak dauden.

Erosotasunak bi dimentsio izango lituzke: Batetik, indibiduala, norberari lotzen zaiona. Kasu horretan argi dago gaitasun egokia izan behar dela eroso aritzeko. Alegia, euskal elebidunak edo elebidun orekatuak izango dira euskara erosotasunez erabiltzeko gaitasuna dutenak. Halakorik ezean, ahalegina eta nekea alboan izango dute euskara erabili nahi dutenek. Datuak aztertuta, elebidunen gorakada nabarmena da, baina ez hainbestekoa euskal elebidunena edota elebidun orekatuena. Horregatik, alderdi horretatik, erabilerarako baldintzak ez direla hainbeste hobetu ondorioztatu dezakegu.

Erabilera erosoaren bigarren dimentsioa soziala litzateke. Dimentsio horri lotutako aldagaiak asko dira: elebidunen dentsitatea eta kontzentrazioa, euskaraz egiteak izan dezakeen onarpen soziala, jardun-guneetako erabilerarako arau sozialak, hizkuntzaren prestigioa ... Kasu horretan, ezagutza handitu den arren, lehendik aipatutako elebidun tipoa (erabilera erosoarako gaitua) ez da hainbeste handitu eta jakina da, gainera, azken urteetako elebidunen gorakada erdal eremuetan eman dela nagusiki. Horrek elebidun berri horiek erabilera erosoarako baldintza makurrak dituzten eremuetan barreiatuta (dentsitate eta kontzentrazio apalarekin) egotea ekarri du.

Hizkuntza Eskubideen egoera 2016

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN
BEHATOKIA



Bestalde, nola ez, euskaldunon eskubideen egoeraren argazkia egiten duen **Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren Urteko txostena** ere izan dugu 2017an. Urteroko moduan Behatokiak euskaldunon eskubideen egoeraren argazkia egin du eta horretarako herritarrek berek bertara helarazitako eskubide-urraketak izan ditu oinarri.

Kezkaz hitz egin du Behatokiak azken urtean administrazio desberdinetan egin diren lan-deialdi publikoen inguruan. Izan ere, Behatokiaren arabera, administrazioa euskalduntzeko prozesuan une estrategikoan gaude. Lan-deialdiak administrazioaren berritze prozesu bat dira. Epe luzerako apustua da eta badugu kontratazio-politiketan orain arte egindakoak utzi digun esperientzia.

Horrela, kexa guztiak aztertu eta bideratuta, Behatokiaren arabera herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ezinbestekoa da lan deialdi publikoetan hizkuntza-eskakizun egokiak ezartzea.

Are gehiago, Behatokiko ordezkarien arabera, kontratazio-politiketan aldaketarik egin ezean hizkuntza-eskubideen bermea hipotekatu eta urraketa-egoera betikotzeko arriskua handia da.

4. CORPUS JURIDIKOA ETA ARAUGINTZA



Hizkuntza gutxitu baten berreskurapen-prozesuan corpus juridiko egokia ezinbestekoa da. Batetik, corpus juridikoak edo araugintzak komunitate horretako hiztunei babes juridikoa eskaintzen die hizkuntza horretan bizi ahal izateko. Gurean askotan ikusi ahal izan dugu aitortza juridiko ezak herritarren eskubideen bermean ez ezik, herritarren beren autopertzepzioan ere eragina duela. Horrela, euskara ofiziala ez den eremuetan herritarrek indar handiagoa erabili behar izan dute haien eskubideen aldarria egiteko, hain zuzen ere, aitortza juridiko-ezak eskubideak desagerrarazi nahi dituelako.

Halere, aitortzaz harago araugintzak beste hainbat funtzio garrantzitsu betetzen ditu hizkuntza baten normalizazio-prozesuan. Hizkuntza-politika egiteko modu asko dago, eta beti defendatu izan dugu politika orekatua izan behar dela. Batzuetan, gehiegitan, dirulaguntza bidezko politikak aplikatu izan dira, eta aldaketak eragin nahi izan dira laguntzen bidez. Bestetan, gutxiegitan, arauak baliatzen dira eragiteko. Horrek, zalantzarik gabe, diru publikoen kudeaketa justuagoa dakar, izan ere, inbertsioak araua ezin irits daitekeen eremuetarako baliatzea litzateke politika orekatuena.

Jarraian, beraz, Euskal Herrian 2017an euskararen normalizazioari begira corpus juridikoaren edo araugintzaren eremuaren gertaera nagusiak aztertuko ditugu.

EAEko HIZKUNTZA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Jaurlaritza sostengatzen duten alderdiek adostutako akordio-programaren garapenaren ondorioz, besteak beste, administrazio publikoetako langileen hizkuntza-eskakizunekin lotuta sistemaren berrikustea aurreikusi zen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak Euskadi Irratian apirilaren 18an egindako elkarriketan adierazi zuen Jaurlaritza lanean ari zela administrazioetako langile eta funtzionarioen **hizkuntza-eskakizunen sistema berrikusteko**. Funtzioak asko aldatu direla eta egokitu beharra dagoela esan zuela sailburuordeak, baina ez zuela aldaketa handirik espero. Hedabideen aurrean honako hau adierazi zuen:

Funtzioak asko aldatu dira, eta begiratu behar dena da egokitu behar diren hizkuntza eskakizun horiek edo ez, herritarren eskubide horiek bermatu ahal izateko. Kasu batzuetan beharbada jaitsi behar dira, baina gutxi izango dira, eta beste batzuetan beharbada igo egin beharko dira. Prozesua amaitzen ari gara, baina ez dugu orokorrean aldaketa handirik espero, baina berrikuspen hori egin beharra dago.

Horretaz gain, espero da hurrengo hilabeteotan Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak aldaketak izatea. Kontseilua horren inguruko proposamena prestatzen ari da.

EAEko AUTOGOBERNUARI BURUZKO PONENTZIA

Horrekin batera, **Eusko Legebiltzarra autogobernuari buruzko ponentziaren** eztabaidarekin ere hasi da. Aurreikusten da eztabaida horren amaieran Autonomia Estatutu berri bat onartzeko aukerak egon daitezkeela.

Horren aurrean, honez gero, alderdi batzuek haien proposamenak aurkeztu dituzte udazkenean zehar, Elkarrekin-Podemosek eta EHBilduk hain zuzen ere. Lehenak berezko hizkuntzaren izaera aitortzen dio euskarari, bai eta ofizialtasuna ere gaztelaniarekin batera. Halaber, euskara doan ikasteko eskubidea estatutu-mailako arauan txertatzea proposatzen du. Bigarrenak euskarak

lehentasunezkoa izan behar duela zehazten du eta koofiziala gaztelaniarekin batera. Kontseiluak ere asmoa du aurrekoetan egin bezala, proposamena aurkezteko.



NAFARROAKO EUSKARAREN LEGEA

Zalantzarik gabe 2017an Nafarroan corpus juridikoari lotutako berririk garrantzitsuen Nafarroako Parlamentuak 1986ko abenduan onartutako **18/1986 Euskararen Legearen egokitzeko** proposamena aurrera atera izana dugu.

2017k otsailean 1986ko Euskararen Legea aldatzeko proposamen bat erregistratu zuten Nafarroako Gobernuak sostengatzen duten lau alderdiek. Legeak ezarritako eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasatzeko eskariak eginak zituzten hamabi udali aukera emango zien Gobernuak. Horretarako, beraz, lau alderdiek lege proposamen bat erregistratu zuten Euskararen Legea egokitzeko. Alegia, eremu mistoa osatzen duten herrien zerrenda aldatzeko.

Kontseiluak horren inguruko balorazioa egin zuen. Horrela, eskaera egindako udalen jarrera ulertu egiten zuela adierazi zuen, izan ere, udalek tresnak behar dituzte eta euskararen ofizialtasunaren aferan urgentzia bat badute. Zirrikitu bila ibiltze horrek euskararen aldeko ahalegina erakusten duela adierazi zuen Kontseiluak.

Halere, Kontseiluak harridura agertu zuen Gobernuak sostengatzen duten alderdien jarrerekin, izan ere, oposizioan zireneko eta agintean daudeneko alderdien posizioak ezberdinak dira. 2011n NaBaik lege proposamena aurkeztu zuen, Ezker Batuaren babesarekin, euskarari ofizialtasun betea aitortzeko Nafarroa osoan, eta indargabetzeko 18/1986 Legea eta bere xedapen guztiak. Ez zuten lortu legea aldatzea, baina ekimen hark balio izan zuen euskaldunok pairatzen dugun injustizia bistartzeko. Horrexegatik Kontseiluak galdera luzatu zien alderdiei: "Orduan Parlamentuan gutxiengoa ziren eta proposamenak ez zuen aurrera egin, beraz, zein oztopo dago orduko adostasuna berreraiki eta Parlamentuan gehiengoa duzuen honetan horrelako proposamen batekin aurrera egiteko?" Horretarako, duela sei urte erakutsi zuten adostasuna errepikatzea besterik ez dagoela adierazi zuen Kontseiluak.

2017ko martxoan, beraz, Euskararen Legearen 5.1.b. artikulua aldatzeko proposamena tramiterako onartu zen, eta 2017ko ekainaren 22ko Osoko Bilkuran onartu zen Legearen egokitzapena Nafarroako Gobernuak sostengatzen duten lau alderdien aldeko bozkei esker. Azkenean, berrogeita

lau herri igaro ziren legeak ezarritako eremu ez-euskaldunetik mistora, eta bat eremu mistorik euskaldunera.

Oposizioko taldeek justifikaziorik ez zuten ikusten udalerrriak eremu mistora sartzeko. Azpimarragarria da PSN alderdiaren jarrera, kontuan hartuta 2010ean antzeko bideari jarraitu ziotela lau herrik, eta orduan, Ezker Batuak sartu zuela ekimena, eta NaBai, PSN eta CDNren babesak izan zuela.

Gobernua sostengatzen zuten alderdien artean ere zehaztapenak izan ziren: Ahal Duguk eta EHBilduk zonifikazioa gainditzea eskatu zuten. Ezkerrak, bere aldetik, prestutasuna agertu zuen lege berri batez hitz egiteko, baldintzak adostuz gero.

Kontseiluko ordezkariak, bazkideekin batera, zuzenean jarraitu zuten Osoko Bilkura eta amaitutakoan aurretik adierazitakoa berretsi zuten, hau da, urratsa zela, baina berandu baino lehen herritar guztiei eskubide berdinak aitortuko dizkien legea onartu behar zuela Parlamentuak. Halaber, Ezkerrak egindako adierazpenei eutsi eta alderdiekin erronda egingo zuela iragarri zuen, lege berri baterako urratsak ematen hasteko.

Azkenik, eta Euskararen Legeari dagokionez aipatu behar da 2017ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran EHBilduren ekimenez eta GEROA BAI zein PODEMOS AHAL DUGU alderdien babesarekin, eta UPNko kide baten faltarengatik, Nafarroako Parlamentuak onartu egin duela Euskararen Lege Berri bat jorratzeko Batzorde Berezi baten sorrera. Aipatu Batzordeak sei hilabeteren buruan zonifikazioa gainditu eta euskarari Nafarroa osoan ofizialtasuna aitortuko dion Euskararen Foru Lege berri baten proposamena aurkeztu beharko du.

NAFARROAKO ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEKO DEKRETUA

Administrazioan **euskararen erabilera arautzeko dekretua** ere hizpide izaten ari da 2017an. Urtarrilaren 31n, Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean aurkeztu zuen Dekretu-zirriborroa, bai eta Gobernuaren webgunean ere, herritarrek eta gizarte eragileek ekarpenak egiteko.

Gogoan izan behar dugu euskararen erabilera arautzeko azken Dekretua hainbat sektorek arbuia zuten 29/2003 Foru Dekretua zela. Aipatu Dekretua UPNren Gobernuak onartu zuen, eta Epaitegiek jatorrizko Dekretuaren hainbat artikulua baliogabetu zuten. Dekretuaren azken helburua euskararen ikusgabetzea eta euskara ofiziala ez den eremuetan herritarren eskubideak are gehiago murriztea zen.

Gobernuak aurkeztutako Dekretu berriaren karira Kontseiluak hainbat ohar egin zituen. Lehenik eta behin, Kontseiluak adierazi zuen Nafarroako Gobernuak ez zuela harreman egokirik bideratu euskalgintzarekin, Dekretua lantzeko. Dekretuaren, hiru bertsio ezberdin eskuratu eta aztertu zituen. Are gehiago, beste sektore batzuei aurkeztu zitzaion arren, euskalgintzari ez zitzaion berariaz aurkeztu. Horrela, Kontseiluaren ekarpenak zuzenean helarazi zitzaizkion Euskarabideari, eta, bestetik, bazkide batek ekarpenok Nafarroako Euskararen Kontseiluan planteatu zituen.

Urtean zehar dekretu-egitasmoak moldaketak izan ditu sindikatuarekin eta Toki Araubidearen Foru Batzordean izandako harremanen ondorioz. Gobernuak Nafarroako Kontseilura eramanez azken bertsioan, gure ekarpenen norabidean (batzuk zehatzago besteak baino) doazen sei aldaketa jasotzea:

- » Dekretuaren izenburua aldatzea: "Nafarroako berezko hizkuntzen erabilera administrazioan arautzekoa" izan da aurreko bertsioetan, eta berariaz euskararen erabilera arautzea duela helburu zehaztea.
- » Ezarritako helburuen jarraipenerako bideak eta ebaluaziorako adierazleak jasoko dituzte erakundeek hizkuntza plangintzek.

- » Zerbitzu zentralen definizioan baztertu da hizkuntza-eremuen aipamenik ez egitea, Kontseiluak eskatu bezala.
- » Era berean, zerbitzu zentralak eremu euskalduneko beste administrazioekin euskara hutsez aritzeko aukera jaso da, Kontseiluak eskatu bezala. Edonola, idazketa ez da egokiena, gaztelania hutsez aritzeko aukera ere zabaltzen baitu.
- » Elebiko zirkuituaren definizioa gehitu da, Kontseiluak eskatu bezala.
- » Irudi korporatiboari dagozkion aspektuetan ere euskararen lehentasuna ezartzea eskatu du Kontseiluak, eta eremu euskalduneko eta eremu mistoko bide-seinaleetan ezarriko da.

Halere, Kontseiluak egindako azterketaren arabera Gobernuak aurkeztu duen Dekretu berriak alde positiboak baditu ere, oso agerian geratzen da ofizialtasun ezaren ezpataren mende idatzita dagoela, eta nabaritzen da hor duela mugarik nagusiena: beharkizun argiak ezarri beharrean ("egin behar da"), baimenak aipatzen ("egin ahal da") jasotzen baitira soilik.

Dekretuaren prestakuntza-prozesuaren amaieran, Nafarroako Kontseiluak iritzia agertu zuen dekretu-zirriborroaren aurrean, eta txostenean auzitan jartzen zuen Dekretuak eremu mistoan eta ez-euskaldunetan zein zerbitzu zentraletan euskara merezimendu gisa jasotakoa. Horren aurrean, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen Nafarroako Kontseiluaren kritikak aztertu eta txertatuko zituela, baina Dekretuarekin aurrera jotzeko asmoa zuela. Testuinguru horretan interesgarria da Gobernuak lehendakari Uxue Barkosek urriaren 17an adierazitakoa, hain zuzen ere, batzuek gainditutzat ematen duten lege batean txertatutako Dekretu posibilitista zela, eta nahiago lukeela Legearen aldaketa balego.

NAFARROAKO IRAKASKUNTZAKO LAN-DEIALDIETAKO ZERRENDAK

Azkenik, eta araubideari lotutako Nafarroako azken elementua **irakaskuntzako lan-deialdietako zerrenda bakarraren** afera genuke. Zerrenda bakarraren auziak banatuta dauka Nafarroako Gobernuak sostengatzen duen laukoa. Gaur egun, irakasle gaiek aukeratu egin behar dute euskarazko zerrendan sartu nahi duten edo gaztelaniazkoan; ondorioz, euskara aukeratu dutenak D ereduko ikastetxeetarako baino ez dituzte deitzen, irakasle elebidunak izan arren. Hezkuntza sektoreak sarri salatu izan du Nafarroa dela modu horretan diharduen erkidego bakarra: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina bai eta Katalunian eta Galizian ere, zerrenda bakarrean sartzen dira irakasle gai guztiak, eta hizkuntza meritu gisa balioesten da. Kontseiluak betidanik salatu du sistema horrek irakasle elebidunak zigortu egiten dituela, hain zuzen ere, euskara jakiteagatik.

Irailean mozioa onartu zuen Nafarroako Parlamentuak zerrenda bakarra baztertzeko. Horrela, UPN, PPN eta PSNren aldeko botoei eta Ezkerra-Ezkerreko alderdien abstentzioei esker egin zuen aurrera mozioak. Halere, urrian Nafarroako Gobernuak aurreratu zuen zerrenda bakarrarekin aurrera jarraitzeko asmoa zuela, eta horretarako Nafarroako Arartekoari horri buruzko txostena eskatua ziola. Gauzak horrela, Nafarroako Arartekoak adierazi du bai zerrenda bakarraren zein bi zerrenden sistemak legezkoak izan daitezkeela, eta beraz, administrazioaren esku uzten du bata zein beste aplikatzea.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA

Ipar Euskal Herriari dagokionez, gogoratu behar dugu lurralde osoa aintzat hartzen duen egitura instituzionala martxan jarri zela urtarilaren 1az geroztik. Herriko Etxe guztiak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoa. Otsailean, hizkuntza-politikaren eskumena hartu zuen Batzordea osatu zen eta bere interbentzio-eremuak definitu ziren:

- » Euskararen sustapena instituzio barnean, zerbitzua ematerakoan eta komunikazioan.
- » Euskararen transmisioa, erabilera eta sustapena kontutan hartzea herrien arteko politiken eta zerbitzu publikoen kudeaketan.

- » Sustapen- eta sentsibilizazio-ekintzak biztanleriari begira.
- » EEPren baitan ordezkartza.
- » Mugaz gaindiko lankidetzak (Nafarroa eta EAE).

Elkargoak bereziki sustapenari lotutako neurriak har ditzake eta EEPekin batera kudeatu behar ditu. Oso definizio zabala izanik, aukerak ematen ditu praktikan hainbat ekimen plantan ezartzeko. Gainera, Herriko Etxe guztiak barnebiltzen dituen instituzioa izanik, politika amankomunak ezartzeko aukera dago.

Halere, esan behar dugu egitura instituzionalaren aldatzeak eskumenen esku aldatzea ekarri duela eta aukera berriak irekitzen direla, baina oso lotua da instituzio berriak hizkuntza-politika eraginkorrak proposatzeko izango duen gaitasunari eta baliabideei; ez, ordea, hizkuntzaren estatus juridiko berri bati.

Izan ere, **estatusari dagokionez** ez da aldaketarik izan: Hizkuntza-politikaren eskumena sustapen-politikari eta hura garatzeko baliabideei mugatua da. Ez zaio hizkuntzari balio juridiko ofizialik ematen. Ez dago, beraz, derrigortasunik ezagutzen edo erabileran, ez eta gizarteko alor ezberdinetako jardueratan ere.

Halere, Elkargoak aukera du bere estatutuetan euskarari izaera ofiziala esleitzeko beste lurralde batzuetan egin den bezala, baina Konstituzioaren bigarren artikulua izaera sinbolikoa izatera mugatuko luke. Dena dela, aitortza horrek aukera emango luke sentsibilizazio eta kontzientzia hartze baterako. Euskalgintzatik egiten den aldarrikapenetako bat esperimentazio-lurralde izendatzearena da. Izan ere, ipar Euskal Herria esperimentazio-lurralde izendatuz gero, horrek jauzi kualitatiboak eta kuantitatiboak emateko aukera irekiko luke.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BABESTEKO LEGEA ESPAINIAKO KONGRESUAN

Azkenik **Espainiako instituzioetan** izandako gertaera bat ekarri beharra ikusi dugu. Urtearen hasieran **hizkuntza-eskubideak babesteko lege asmo bat** aurkeztu zuen alderdi sozialistak Espainiako Kongresuan, hain zuzen ere, erakundeek euskaraz (edota beste hizkuntza ofizialetan) zerbitzu emateko eta lanpostuetan hori aintzat hartzeko. Halaber, gaztelania ez beste hizkuntzak sustatzeko eskatu zuen.

Halere, Espainiako Estatuan izan da horri kontra egiteko herritar batzuek abian jarritako kanpaina. Berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan kokatuta dauden eragile batzuek Herri Ekimen Legegilea abiatu zuten uztailan eta urrian Espainiako Kongresuko mahaia oniritzia eman zion ekimenari, eta, beraz, sinadura-bilketari ekin diote. Haien aldarrikapenak ohikoak dira: gaztelaniadunen eskubideak bermatzea, eskoletan gaztelaniaz ikasi ahal izatea ... Dena dela, aztertu beharko da Espainiako Kongresura eztabaida iristean, zer-nolako legea proposatzen den.

Amaitze-aldera, gogoratu nahiko genuke Plataforma per la Llengua elkarteak egindako azterketaren arabera 2017ko lehen bederatzi hilabeteetan Estatuak gaztelania hogeita hamazazpi aldiz inposatu duela arau desberdinen bidez. Denbora-epe berean, Europako instituzioek katalanari (eta, ondorioz, euskarari) kalte egiten dizkioten arauak hogeita bost aldiz onartu dituzte. Hamar kasutan, Estatu kideetan hizkuntza ofizialei pribilegioak eskainiz, hamabitan Europako Batasuneko hizkuntza ofizialen alde eginez, eta hirutan Batasuneko hizkuntza ofizialen zein Estatuetakoa hizkuntza ofizialen alde eginez.

5. PLANGINTZA



Hizkuntza-politika zerbait baldin bada, politika planifikatua da, ezin da bestela kudeatu, egite hutsak ez gaitu helburura gerturatzeko. Eta, beraz, helburu eta epe zehatzak dituen da hizkuntza-politika egokia. Lehenengo eta behin, azken helburua definitu behar da, definizio argia, gardena, denok ulertzeko modukoa behar dugu, ezinezko sozialik gabea. Helburu horretara iristeko eman beharreko pausoek, horiek eman ahal izateko epeak eta bitartekoak etab. unitate zatiezina osatzen dute. Normalizazio-prozesuak diseinu teorikoa izan behar du, gauden momentutik hasten dena eta helbururainoko bidea egiten duena. Gizartearen bilakaeraren arabera, berrikusi beharko dira helburuak eta epeak baina edozein kasutan zehatz-mehatz ezagutu behar dira.

OSAKIDETZAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO BIGARREN PLANAREN ERDIKO EBALUAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, eta **Eusko Jaurlaritzari** lotuz, 2017an garrantzia hartu du **Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren erdiko ebaluazioa**. Horri lotuta, KONTSEILUAK osasungintzako sektorea osatzen duten bazkideekin elkarlanean (OEE, Behatokia eta UEMA), Planaren erdiko ebaluazioa aurkeztu zuen hedabideen aurrean, bai eta Osakidetza arduradunei ere.

Aipatu balorazioan, Osakidetza bigarren plana betetzetik urrun zegoela adierazi zuen Kontseiluak. Hainbat eremu jorratu zituen Kontseiluak Planaren balorazioa egiteko, besteak beste, jardun-eremuen balorazioa eta euskararen erabilera normalizatzeko neurrien balorazioa. Horrela, eremukako balorazioek erakusten dute neurriak ez direla behar bezala betetzen ari, irudian eta komunikazioan, kanpo- zein barne-harremanetan, hizkuntza-kudeaketan, hizkuntza-eskakizunetan, kontratazio-politikan.

Horren aurrean, Kontseiluak proposamen zehatzak ere egin zizkion Osakidetza Bigarren Planaren amaiera-ebaluazioa egiten denean egoera hobetu ahal izateko. Neurri horien artean daude euskarazko arretako zirkuituak ziurtatzea, zerbitzuen kontratazioetarako edota esleipenetarako hizkuntza-irizpideak ezartzea, langileen euskalduntzea azkartzea eta kontratazio-politika aldatzea. Azken horren karira, Kontseiluak berretsi zuen ez duela zentzurik langile erdaldun elebakarrak kontratatzen jarraitzea. Eremu horretan, gainera, UEMAK bereziki kezkarritzat jo zuen udalerri euskaldunetan ordezkapenekin gertatutakoa.



NAFARROAKO EUSKARAREN LEHEN PLAN ESTRATEGIKOA

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, 2017ko urtarilaren 25ean Nafarroako Gobernuak **Euskararen Lehen Plan Estrategikoa** onartu zuen eta datozen hiru urterako 10,8 milioi euroko inbertsioa egingo zuela aurreikusi zuen. Herritarrekiko eta Instituzioekiko Harremanetarako Kontseilari Ana Ollo paradigma berria behar zela adierazi zuen eta hizkuntza beste egoera kualitatibo batera emango duen jauzia helburu onartu zen 2016-2019 eperako plana. Horrela, agintarien esanetan Planak hiru oinarri dauzka: 1986ko Euskararen Legea, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna eta Gobernua babesten duten lau indarrek adostutako itun programatikoa.

Prozesu parte-hartzailearen bidez osatu zuten Plan Estrategikoa eta hainbat arlotako 60 ordezkariak parte hartu zuten, tartean, Kontseiluak, Behatokiak, Ziurtagiriaren Elkartek eta Kontseiluko hainbat bazkidek.

Zalantzarik gabe, Kontseiluak modu positiboan baloratu zuen Euskararen Lehen Plan Estrategikoa abiatu izana, eta horrexegatik, prozesuan hogeita hamabi ekarpen egin zizkion. Horietatik hogeita bat onartu ziren, bost ekarpen nola gauzatu aurrerago aztertzeko utzi ziren edo administrazioa euskalduntzeko dekretuaren baitakotzat jo zituzten eta sei ekarpen ez zituzten onartu. Besteak beste, helduen euskalduntzearen doakotasuna ezartzeko eginiko ekarpena -hiru urteko epean ez duela astirik ematen erantzun zuten- eta euskarako aurrekontua %2 izatera iristea proposatzen zutenak.

Gauzak horrela, lehen esan bezala, Plana bera garatu izanak aurrerapausotzat jo zuen Kontseiluak, nahiz eta egindako ekarpenei emandako erantzutetan ikusi bezala, 1986ko Euskararen Legea oinarri izateak hainbat mugak ezartzen zizkion planari berari.

Euskararen gaiarekin urte osoan zehar ohiko izan duten moduan, UPNk eta PPNk gogor egin zioten Gobernuari Plana onartu izanagatik. PSNko ordezkariaren arabera, Planak elementu interesgarriak ditu hizkuntzaren prestigioari dagokionez, baina dokumentuaren hasieran "Euskaraz bizitz" jartzea auzitan jarri zuen. Horrela, Plana izaera abertzaleko gobernu batek euskara hezkuntzan eta administrazioan inposatzeko zela adierazi zuen. Bestalde, Gobernua sustengatzen duten alderdiei dagokienez, egoki ikusi zuten Planaren edukia.

Esan dugu, bai, hizkuntza-politika zerbait planifikatua dela, eta interesgarria dela plana garatu bitartean ebaluazio edo balorazioak egitea, behar izatera, neurri zuzentzaileak jartzeko. Honako honetan ere hala izatea espero dugu.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO PLAN GIDARIA

Nafarroarekin jarraituz, ezin alboan utzi Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) ere plan gidaria aurkeztu zuela. Horrela, euskarazko eskaintza handitzeko asmoa azaldu zuen NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Euskararen plan gidaria taxutu zuen, eta helburuen artean jarri zuen euskaraz ematea kreditu gehiago. Gaur egun graduko 1.300 kreditu eskas eskaintzen ditu euskaraz NUPEk; kredituen %20 egin daitezke euskaraz, beraz. Ia ingelesaren pareko proportzioa da hori: kredituen %18 eskaintzen ditu NUPEk ingelesez. Helburu dute gutxienez 200 kreditu gehiago eskaintzea euskaraz. 2017-2019 artekoa da plana. Zehaztasun gutxi jaso dituzte, baina: ez dute zehaztu zein arlotan eta noiz handituko den euskarazko eskaintza. Finantzaketari buruzko argibiderik ere ez dakar euskara planak. Izatez, asmo gehienetarako ez dute erabiliko finantzaketa gehigarririk».

Unibertsitateak iazko apirilean onartu zuen 2016-2019ko plan estrategikoa, eta han jaso zuten euskara plana egitea. Urtebete geroago iritsi da. Nabarmendu dute unibertsitatea estrategikoa dela

euskararentzat, lan arloarekin lotuta dagoelako eta hizkuntza bera hazten lagundu dezakeelako. Nahitaezkoa da euskaraz eskaintzen diren ikasketak nahikoak izatea, eta betiere kalitate handiko estandarrei lotuak.

Oraingo eskaintzaren azterketa eginda, bistakoak dira hutsuneak. Bi gradu soilik egin daitezke erabat euskaraz NUPen: Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza. Unibertsitateak adierazi zuen euskarazko eskaintza nabarmen areagotu dela urteotan, nahiz eta homogeneoa ez den izan.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EUSKARA PLANARI HELEGITEA

Azkenik, azpimarratzeko moduko gertakaria izan zen ekainaren 23an EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak **Gipuzkoako Foru Aldundiak** onartutako euskara planaren gainean emandako epaia, hain zuzen ere, Espainiako Gobernuarekin bat egiten zuena, eta ondorioz, toki euskaldunetan komunikazioak euskaraz bakarrik egitea, kontratazio administratiboetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eta diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eragozten duena.

Aurreko agintaldian egin zuten euskara plana eta aurten amaituko du indarraldia. Euskara lehenesteko puntuak ditu, euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka berdintzea helburu.

Plana aurkeztu eta biharamunean bertan, Espainiako Gobernuaren ordezkariak jakinarazi zuen helegitea jarriko zuela. Carlos Urkijo zen ordezkari, eta esan zuen koofizialtasuna urratzea zela plan hori.

Donostiako auzitegian aztertu zuten salaketa hura eta artikulua bat indargabetu egin zuen epaileak. Zera ezarri zuen artikulua horrek: Diputazioaren laguntzaren bat jasotzen dutenek euskara behintzat erabili behar dutela laguntza horri dagozkion agerpen publikoetan.

Atal hori kenduta, gainerakoak balekotzat jo zituen Donostiako auzitegiak. Halere, gobernu ordezkariak helegitea jarri zuen Plan osoa bertan behera uzteko. Auzitegi Nagusiak ez du plana osorik indargabetu, baina bai bost artikulua, hain zuzen ere, Donostiako auzitegiak baliogabetutakoa eta beste lau.

Erabakiarekin ados ez zegoela eta Diputazioak helegitea tarteratuko zutela adierazi zuen Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak. Halaber, euskarak lehentasuna konpentsatzailea behar zuela adierazi zuen.

Kontseiluak ere salatu egin zuen Auzitegi Nagusiaren epaia. Horrela, berretsi zuen epai horren bidez, Espainiako Estatuak erabaki nahi duela zein hizkuntza erabili behar dugun eta zein hizkuntzatan bizi behar dugun. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak hasitako bidearen ondorioa dela azpimarratu zuen, eta azken helburua, gure hizkuntza normalizatzeko eskubidea mugatuta dugula gogoraraztea dela, eta azken hitza beste gune batzuetan kokatzen dela. Honela, kanpo-eskuhartzerik gabeko hizkuntza-politika definitzeko eta exekutatzeko eskubidearen aldarria egin zuen Kontseiluak.

IPAR EUSKAL HERRIAN HIZKUNTZA-PLANGINTZA BATERATZEKO AUKERA

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Euskal Elkargoak bere baitan biltzen dituen euskara teknikariak aurrera daramate hizkuntza-politika eraginkorrak martxan ezartzeko bidea. 2017 urtean zehar, herri eta elkargoetan barreiaturik egiten ziren politiken diagnostikoa egin dute, izan ere, 2018aren hastapenean, hizkuntza-politika bateratu bat ezarri nahi da martxan eta horren arabera aurrekontuak bozkatu. Hizkuntza-plangintza bateratu bat ezartzeko aukera dago orain eta hori aldaketa nabaria da. Horretaz gain, gizarte eragileekin lankidetzat burutzeko aukera berriak ireki dira.

6. BALIABIDEAK



Hizkuntza-politika egoki batek baliabide egokiak behar ditu. Are gehiago, baliabide egokiak ez ezik, baliabideek egoki kudeatuak ere behar dute izan. Arestian aipatu bezala, hizkuntza-politika arau bidez eta bitarteko egokiak inbertituz egin behar da, baina ezin da baliabide-esleipenean bakarrik oinarritzen den hizkuntza-politika garatu, erabat desorekatua litzatekeelako.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTUAK

Aurrekontuak osatzeko testuinguruan, helduen euskalduntzearen doakotasunak garrantzi handia hartu du 2017 urtean zehar. Irailean Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak gogoratu zuen Herri Aginteen Koordinaziorako Batzarrean (HAKOBA) dauden erakundeak lanean ari direla B2 maila arteko doakotasuna bermatzeko. Horren karira, arduradunek adierazi zuten Eusko Jaurlaritzak 1.250.000 euro erabiliko dituela ikasturte berrian euskara ikasleentzako diru laguntzetan.

Eusko Jaurlaritzak 2.771.000 euroko partida onartu zuen euskara sustatzeko jarduerak diruz laguntzeko. 2017-2018 aldian Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) barruan daude diru laguntza horiek. Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak, familia bidezko transmisioa sendotzea helburu dutenak, euskara eta haren mundua etorkinengana hurbiltzea helburu duten ekimenak, haur eta gaztetxoekin ahozotasuna lantzeko programak, mintzapraktika lantzea helburu duten jarduerak, merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera areagotzea helburu duten ekimenak eta Euskarak 365 egun ekimen berriaren garapenarekin lotutakoak aurkeztu ahal izan dira laguntza horietara.

Baliabideei lotuta, interes handikoa izan zen HEKIMENek eta Euskaltzaindiak 2017ko otsailean antolatutako *Euskal hedabideak itun bila* izeneko jardunaldia, hain zuzen ere, sektorearen errealitatea, hedabideen funtzioa, kontzertazio-eredu ezberdinak eta aurrera begirako planteamendua aztertzeko. Jardunaldiak ondorio praktikoak ere izan zituen, izan ere, HEKIMEN elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak mahai bat osatu zuten iaz, eta, gobernu aldaketarekin, Eusko Jaurlaritza ere sartu da prozesu horretan.

NAFARROAKO AURREKONTUAK

Nafarroari dagokionez, Euskarabideko aurrekontua 2 milioi € igo da (2016, 4.045.220€), eta dirua batez ere euskararen sentsibilizaziorako eta sustapenerako erabiliko da (600.000€), euskara udal-arloan garatzeko laguntza programetarako (650.000€), hedabideetan bere presentzia sustatzeko (580.000€) eta helduen euskara irakaskuntzari laguntzak emateko (700.000€).

Azpirarratzekoa da, beraz, hedabideei begirako laguntzak bikoiztu egin direla aurten euskarazko zein euskaraz zerbait erabiltzen duten hedabideentzat. Halaber, tokiko erakundeei euskara sustatzeko laguntza ere iazkoaren ia bikoitza izan da 2017an. Kontrara, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen sektoreari dagokionez, sektoretik iazko laguntzak (604.000 €tik 1.200.000 €ra) bikoiztea proposatu bazen ere, soilik 100.000 €ko hazkundea izatea lortu zen.

IPAR EUSKAL HERRIKO AURREKONTUAK

2017an 1.930.000 euro banatu dituzte aurten eragileen artean, iaz baino 200.000 euro gehiago. Bi multzotan banatua da lankidetzarako funtsa: bederatzi eragile hitzarmenean oinarriturik diruztatzen dira -1.550.000 euro banatu dituzte guzien artean-, eta gainerako eragileak, hizkuntza jarduerak.

Kontuak kontu eta kopuruak kopuru, Kontseiluak aspaldi adierazia du aurrekontuetan jauzia eman beharra. Gutxienez, aurrekontu orokorren %2 euskararen normalizaziora bideratzea ezarria dugu irizpide gisa. Ez gara horretara mugatu ordea, baliabideen erabilera egoki batean dago gakoa. Horretarako, lehendik esan bezala, arauen bidez eta diru inbertsio bidez egin beharreko lanketaren orekaz gain, diru-inbertsio horren erabilera zuhurra eta eraginkorra proposatzen dugu. Bide horretan, lehendik ere eginak ditugu EAErako eta Nafarroarako aurrekontu egoki batzuetarako oinarritzko proposamena.

7. HERRI-GOGOA



Hizkuntza baten normalizazio-prozesua politikoa eta soziala da. Hau da, hizkuntza bat berreskuratuko da atzean hori nahi duen gizarte sendoa eta herri gogo bizia baditu. Are gehiago, herri gogo bizi hori da instituzioetan eragiteko hizkuntza-komunitateak duen kapitalik handiena.

Hizkuntza bat normalizatuko da, beraz, hizkuntza-politika egoki bat badu eta herri gogo indartsu eta bizia baldin badago.

IZAERA NAZIONALEKO EKIMENAK

Urte bakoitia izanik, 2017an euskararen inguruan antolatzen den ekimen ikusgarrien, parte-hartzailearen eta anitzaren urtea izan da, KORRIKA urtea. BATZUK lelopean martxoaren 30ean Otxandion hasi eta 2.557 kilometro egin eta gero apirilaren 9an iritsi zen Iruñera.

Inoizko KORRIKA jendetsuena izateaz gain, egia ere bada hemeretzigarren KORRIKAK argazki berriak erakutsi dituela. Horietatik esanguratsuena Lapurdi eta Gipuzkoa lotzen dituen Santiago zubiko kilometroak erakutsitakoa izan zen. Kilometro hori Kontseiluko zuzendaritza osatzen duten hamar bazkideek, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko instituzio nagusietako ordezkariak egin zuten elkarrekin.

Argazki hori eta arrakasta guztia gogoan, AEK-k KORRIKAREN balorazioa egin zuenean konpromisoaren eta auzolanaren ordua zela berretsi zuen eta horren karira bi eskaera egin zuen: "Batetik, euskara ikasteko doakotasuna aldarrikatu da Korrika honetan, eta hori izan beharko litzateke lehenbiziko pausoa; epe motzean Euskal Herri osoan doan ikasteko aukera zabaltzea, eskubidezkoa delako, behar dugulako. Bigarrenik, Euskal Herrikoa Administrazioek eta euskalgintzako eragileok, elkarrekin, hasi eta adosteko bidea egitea. Horretarako tresna egokia Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa dela uste dugu, beraz, etorkizuneko epeak, helburuak eta gutxienekoak zehazteari ekitea litzateke bigarren eskaera eta erronka."

Aipatu behar da euskalduntzearen doakotasunari dagokionez KORRIKAn zehar aldarri izan zela Euskal Herriko hiriburuetan horren alde egindako kilometroen bidez.



Ekimen horretaz gain, hor ditugu, nola ez, euskal hezkuntzaren inguruan antolatutako jai guztiak; Euskal Eskola Publiko Berriaren Festa, Araba Euskaraz, Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Eskola Txikien edo Eskola Publikoaren jaiak. Beste urte batez jai horiek guztiek urtean zehar antolatzen zen herrietan sortutako elkarlana eta egunean bertan izandako arrakasta kontuan hartu behar dira.

ERRIGORA ekimena ere gero eta indar handiagoa hartzen ari da gurean. Auzolana, herrilana, zubigintza dira Errigora egitasmoaren kanpaina berriaren goiburuak. Nafarroa hegoaldeko euskara eta nekazaritza bultzatzeko ekimena elkartasunean eta elkarlanean oinarritzen da. Urtez urte zabaltzen doan proiektua da, eta kopuruak ere gorako bidean doaz. Iazko udazkeneko kanpaina 14.000 saski banatu dituzten, eta 175.000 euro bideratu zituzten euskalgintzako proiektuetara. Aurtengo udaberrian berriz, 85.000 litro olio banatu dituzte, 208.000 euroko laguntza lortuz.

HERRIETAKO EKIMENAK

2017an hasi ez baziren ere, uste dugu herri gogoaren atalean derrigorrez aipatu behar dela hainbat herritan euskararen erabilera sustatzeko sortu diren dinamikak, hain zuzen ere, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekimenak edo ahaldundze-saioak.

Aipatu ekimena Donostiako Egia auzoan hasi zen. Ondoren, gertukoek, Añorgakoek eta Donostiako Pirattek egin zuten proba. *Egia Euskaraz* estiloari tiraka gehiago etorri ziren: Hernani, Lasarte-Oria, Agurain, Astigarraga, Arrigorriaga, Deustu, Baiona-Angelu-Miarritze... Herri guztietako euskalgintzako eragileek sentimendu bera adierazi zuten: euskararen alde jaiak egitetik atera eta euskaraz bizitzeko estrategiak probatzearen beharra.

Horrela, herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzea da **Euskarak 365 egun** dinamikaren helburua. Euskaraz egoera normalizatu batean bizitzea epe luzeko helburua da, eta, horregatik, aurrera begirako lan ildo gisa ulertu behar da abiatzen ari diren bidea.



11 egun euskaraz ekimenak helburu zehatza dauka: euskaltzale helduak aktibatzea eta prestatzea, beren eguneroko harremanetan euskaraz aritu daitezzen ulertzen duten herritar guztiekin. Horretarako, hamaika eguneko ekimenak gauzatzea proposatzen da, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Ekimena Euskal Herri osokoa izango den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamikaren sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko bakoitzaren errealitatera moldagarria izango da.

Bestalde, 2017ko urriaren 11n KONTSEILUAK Nafarroako hainbat herritan **'Euskara Ofiziala Nafarroa Osoan'** izenpean garatuko den dinamika aurkeztu zuen. Bere aurkezpenean azaldu bezala, 'euskaldunok Nafarroan bizi duten bereizkeria gainditzea du helburu, eskualdekatzearekin amaituz'. Horretarako, Iruñerriko hainbat herritan zabaldu den dinamikaren bidez dei egin die herritarrei euskaraz bizitzeko dituen zailtasunak azaltzera, euskara ofizializatzea eskatzearekin batera. Herritarren eskabideak jaso eta dira Udalei eta Parlamentuari helaraziko dizkiete.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA

Proposamen zehatzekin lotutako ekimenak ere izan dira herrigintzatik. Kontseiluak Europako hogeita hamar hizkuntza gutxitu baino gehiagoren alde lan egiten duten ehunetik gora eragilerekin adostutako **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa** aurkeztu zuen 2016ko abenduan, bai eta Protokoloaren betetze-maila neurtzeko Kaiera ere.

2017an **Protokoloa euskararen ezaugarrietara** ekartzeko prozesu sakona garatzen ari da Kontseilua euskararen normalizazioaren bueltan lan egiten duten hamarnaka eragilerekin, bai eta neurri horien garapenean zeresana izan dezaketen beste hainbat gizarte eragilerekin batera ere. Bide hori urratzeko, gaur-gaurkoz Euskal Herriko berrogeita hamar gizarte eragiletik gora gurekin harremanetan dira euren ekarpenak egiteko.

Dinamika horren baitan, ezin da ahaztu maiatzaren 31n, euskal sindikalgintzaren gehiengoak (LAB eta ELAri, EHNE, ESK, STEILAS eta HIRU) Donostiako Protokoloarekin bat egin eta bere implementazioan eragile aktibo izateko konpromisoa agertu zuela.

Eta, nola ez, gure mugetatik kanpoko hainbat instituziotan Protokoloaren dimentsio politikoa aurkeztu da. Horrela, Galiziako, Valentziako, Kataluniako eta Korsikako parlamentuetan aurkeztu da. Horretaz gain, Europako Kontseiluko hainbat aditurekin bilerak egin dira Protokoloa egun indarrean dauden itunen osagarri nola bihurtu aztertzeko, eta abar.

BESTELAKO EKIMENAK

Horrekin batera ere aipatzea merezi duten **bestelako ekimenak** ere izan dira, esaterako, arlo sozio-ekonomikoan euskalduntzeko Urola Kostako eragileek, sindikatuak eta enpresek Kontseiluarekin batera jarritako egitasmoa, edota kontsumitzaile euskaldunak aktibo bihurtzeko Baduzu aplikazioa eta abar luzea.

Helduen euskalduntzearen doakotasuna bideratu asmoz, KONTSEILUAK **helduen euskalduntzearen sektorearekin** batera **Doakotasuneranzko bidean** proposamena aurkeztu zuen. Lehen aldiz, helduen euskalduntzearen sektorea proposamen bateratua eta adostua aurkeztu zuten; are gehiago, proposamena bera KONTSEILUAREN sektorea osatzen duten AEK, Errioxako eta Nafarroako AEK, Maizpide, Urrats eta Hitzek eragileek adostu bazuten ere, gizarte ekimeneko euskaltegi gehien atxikimendua jaso zuen, %91rena hain zuzen ere.

Azkenik **herri edo auzo mailan aldarrikapen zehatzak** egiteko dinamikak ere izan dira. Akaso, azpimarratzekoa izan da Iruñeko Arrotxapea auzoan osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko egindako lanketa, edota Iruñean bertan Nafarroako Gobernuko haur-eskoletan euskarazko lerroak ireki ditzaten garatutako dinamika.



8. ONDORIO OROKORRAK. AURRERA BEGIRA



Zalantzarik ez dago urtean izandako gertaerak aztertuta, hurrengo hilabeteotan euskararen normalizazioan garrantzia izan dezaketen erabakiak hartuko direla, eta beraz, Euskalgintzak, eta noski Kontseiluak, adi egon behar dutela horietan guztietan eragiteko.

Lehendik aipatu dugun bezala, hizkuntza baten normalizazio-prozesua politikoa eta soziala da. Urteko balantzeak erakutsi du euskararen aldeko gizarte mugimenduak, bere historian zehar behin eta berriro erakutsi duen bezala, bere burua eta bere egitasmoak berritu eta eraberritzeko duen gaitasuna. Hori gabe, ezin uler litezke, Korrikaren arrakasta edota euskarak 365 egun bezalako egitasmoak. Horiek izaniko arrakastak, berriz, beste behin agerian utzi du euskararen normalizazioaren aldeko herri gogo indartsua. Ez kasu horietan bakarrik, noski, bestelako ekimen nazionaletan, herritarren ahalduntzean, zein aldarrikapen sektorialetan edo herrikoetan, atxikimendu handia izan da oro har eta herritarrok engaiamenduak edo konpromisoak hartzeko prestutasuna agertu dugu. Ondorioz, zutabe horrek normalizazio-prozesua elikatu izan du urteetan, oraindik elikatzen jarraitzen du eta aurrera begira hala egiten jarraituko duen uste sendoa dugu.

Ezin da, ordea, normalizazio-prozesuaren zama herritarren edo gizarte mugimenduan bizkar soilik utzi. Hizkuntza-politikari lotutako zutabeek sendotu, bultzatu eta lagundu behar dute bide hori.

Kasu horretan, urteak erakutsi digu, berrikuntza gehienak Nafarroako Foru Erkidegotik etorri direla. Normala izan liteke, besteak beste, urteetako politika glotozidaren ondotik, ia dena baitago egiteko edota eraikitzeko bertan. Halere, euskaldunon hizkuntza-eskubideak egikaritzearen aurkakoen jarrera deseraikitzailearen eta beligerantearen aurrean, nabarmen geratu da, euskalgintzak eragiten segitu beharko duela gobernuak politika aurrerakoia garatuko baditu. Ipar Euskal Herrian, berriz, instituzionalizazio prozesuak aukera berriak ireki dituela argi dago. Ez dago hain garbi ordea, aukera horiek zenbaterainokoak izango diren, ez eta zenbateraino egongo den horiei ahalik eta atarramentu gehien ateratzeko borondate politikoa. EAEri begiratzen badio berriz, aspaldiko urteotan ez da hizkuntza-politiketan berrikuntza handirik sumatu. Halere, lankidetzaren berrietarako aukeren atea zabaltzen ari den seinaleak ikusten ari direla esan behar dugu.

Horiek esanda, ondorio orokor gisa esan behar dugu 2017an publiko egin diren inkestek eta neurketak normalizazio-prozesuaren bilakaeraren elementu argigarriak jartzen dituztela mahai gainean. Zenbait argi gorri piztu dira eta orain arteko hizkuntza-politikek goia jo dutela esan genezake. Horregatik guztia eragatik hizkuntza-politiken sakoneko berrikuspena egin beharra ikusten dugu. Hizkuntza-politikak birpentsatu behar ditugu. Bide horretan, bada garaia hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatzeko; bada garaia administrazioari sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko; bada garaia instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko.

Eta hizkuntza-politika berrabiarazi behar den arren, ez gara hutsetik abiatzen, ez dugu orri zuria. Orain artekoaren balorazio kritikoa eta irakaspenak aintzat hartu eta badugu esku artean, European eta Euskal Herrian hizkuntza-politiken inguruan inoizko adostasun handien izan duen iturburuko kodea. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak oinarri ezin hobea eskaintzen digu aipatutako hizkuntza-politikaren berrikuspena egin ahal izateko, etorkizuna nondik etorri beharko lukeen irudikatzeko. Horretarako ari gara, hain zuzen, Euskal Herriko berrogeita hamarretik gora gizarte eragilearekin Protokoloaren Euskal Herriko Kaiera lantzen. Euskal Herriko errealitateak abiatuta, hizkuntza-eskubideak egikaritzeko neurri efektiboak eta zehatzak definitzeko.

Hartara, 2018an Kaiera horren aurkezpenak beste mugarri bat ekarriko duela aurreratu nahiko genuke gaur. 2018an Kaiera aurkezteaz gain, proposamen berri horren bueltan jarri nahi ditugu Euskal Herriko eragileak. Finean, hizkuntzaren normalizazio-prozesua ez da Euskalgintzak bere baitan

garatuko duen zerbait. Kaiera egiten lagundu diguten eta bestelako eremuetan lanean dauden eragileak ere bidaide eta partaide izan behar ditugu, orain arte bezala, Kaieraren garapenean. Izan ere, eremu sozioekonomikoan, hedabideetan, teknologia berrietan, administrazioan, hezkuntzan, kulturean... hartu beharreko neurri-sorta eta horien garapena izango ditugu eskuartean, eta beraz, aukera izango dugu guztion artean lehentasunak ezartzeko eta bide-orri bat prestatzeko.

Hortaz, prozesu horren emaitza ere izango da, Korrikaren balorazioan esan bezala, tresna interesgarria bezain eragingarria izango dugula instituziok eta euskalgintzak elkarrekin lan egiteko.

Zinez uste dugu 2018an inflexio-puntua etorriko dela herritarren ahalduzkoan eta inflexio-puntua etorriko dela proposamen politikoan. Are gehiago, epe labur-ertainean etor daitezkeen erronkei, alegia, Hezkuntza akordioa EAEn, Nafarroako Euskararen Lege Berria, EAEko Estatutu Berria... Kontseiluak Protokolotik eratorritako Euskal Kaieraren bidez erantzun ahal izango die, eta dokumentuok atzean duten babesari erreparatuz, nahitaez kontuan hartu beharrekoa izango dela uste dugu.

Gauzak horrela, 2017ak zer eman duen baino indar guztiak 2018ak ekarriko duen horretan jarri behar ditugu, izan ere, hizkuntzaren normalizazio-prozesua sozialki eta politikoki eragiteko baldintzak ez ezik, aukerak ere izango ditugula iruditzen zaigu.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

www.kontseilua.eus



www.twitter.com/kontseilua



www.facebook.com/EuskararenKontseilua